

2020
URTEKO
TXOSTENA



AURKIBIDEA

- 01/**
MEZU
INSTITUZIONALA
03
- 02/**
ZIFRA
EKONOMIKOAK
04
- 03/**
LAN
ARLOAK
05
- 04/**
ZIFRA
ZIENTIFIKOAK
06
- 05/**
URTEKO
GERTAKARIAK
07
- 06/**
GOBERNU
ORGANOAK
10



01 /

MEZU
INSTITUZIONALA

**José María
Rodríguez Ibabe**

Presidente Exekutiboa

**Ezbeharraren
aurrean indartuta**

2021aren erdialdera iritsi izanak ematen digun ikuspegitik eta pandemiaren okerrean igaro izanaren itxaropenaz, une egokia da 2020. urtea Ceit zentroarentzat nolakoa izan den ebaluatzeko. Urte zaila izan da inguruabarren ondorioz, baina zentro honetan lan egiten duten pertsonen etengabeko lanari, ahaleginari eta dedikazioari esker, oso emaitza onak lortu ditugu. Ondoko lerroetan labor-labor aurkeztu behar dugun 2020ko memoria honetan, Ceitosatzen dugun giza-talde osoaren baterako lanaren emaitza nagusiak laburbildu ditugu.

Martxoaren hasierako sinestezintasunetik eta apirilean nahiz maiatzean zetorrenaren tamainaren beldurretik, itxaropena itzuli ginen ekain-uztailean. Zikloa errepikatu genuen berriz ere bigarren olatuarekin, eta gerora asperdura etorri zen, baita haserrea ere, egoera orokorraren aurrean. Hala ere, guzti-guztiok alde edo molde gogo-aldarteetan pairatu ditugun gorabehera horiek ez dute ia eraginik izan gure jardura profesionalean. Gure taldearen konpromiso eta eskuzabaltasunari esker, berehala egokitu ahal izan gara telelana, bileren birtualizazioa eta lankideekiko harremanen murrizketa nagusi izan dituen egoera aldakorrera.

Zoritxarrez, pandemia honen ondorioz, gutako batzuek senitartekoak eta lagunak galdu ditugu, horien artean Antxon Martin Meizoso gure lankidea zena. Hala ere, gure giza-taldearen jokabide arduratsu eta eredugarriari esker, gure instalazioetan ez da kutsatzerik gertatu eta Ceit lanerako gune seguru bihurtu da.

Testuinguru honetan, zentroaren jardura mantendu ez ezik, handitu ere egin da, eta horren harira, 2021ean emaitza onak lortuko ditugula aurreikus dezakegu. 2020an izandako gertaerarik nabarmenen artean, ez dira falta izan COVID-19aren ondorioak arintzeko ekimenak, hala nola, urruneko bideo-deien proiektua, Matia Fundazioaren aitorpena lortu duena.

BRTA aliantza teknologikoko kideak garen aldetik, lanean dihardugu 2020-2023 epealdirako ekintza-plana abian jarri eta COVIDaren osteko egoeran ekonomia suspertzen lagunduko duten soluzioen proposamena egiteko.

Bestalde, indarrak batu ditugu ekonomia zirkularraren arloan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Naturklima fundazioarekin, Gipuzkoa % 100 jasangarria den lurraldetzat posizionatzeko eta Green Dealen Europako politikei erantzuteko. Horrez gain, Ceit Euskadin 5G teknologia probatuko duen partzuergoko kidea da, CAF, Gestamp eta Datik erreferentziatzeko enpresek eta Euskaltel eta MásMóvil Taldea telekomunikazioen arloko operadoreekin batera.


Era berean, abian dugun Atomizazioko Instalazio Pilotuaren aurkezpena beste aurrerapauso bat izan da hauts-metalurgia eta fabrikazio aditiboko zentroaren ildo estrategikoen garapenerako. Zentroarentzat giltzarria den beste sektore batean, trenbide-sektorean, Ceit-ek eta Inycom-ek sortutako MainRail Solutions spin-off berria eratu izanak kontuan hartzeko moduko erronka ekarri du Trenbidearen Europako Urtean.

Horregatik guztiagatik, Zuzendaritza Batzordetik esker oneko mezu beroa helarazi nahi diogu giza-talde osoari, izan ere, eguneroko lan eta ahaleginaren bitartez, ekaitzaren erdian gure ontzia hondoratzetik salbatu eta indartuta ateratzea lortu du.

02/

ZIFRA
EKONOMIKOAK

GUZTIZKO DIRU-SARRERAK



PERTSONAK





03/

LAN
ARLOAK



MATERIALAK ETA FABRIKAZIOA

Beharrian bakoitzari ongien egokitzen zaion lehengaia lortzea zein 4.0 Industriako aplikaziorik aurreratuenak (robotika, ikusmen areagotua, IoT, 3D inprimaketa...) tarteko dituzten soluzio integralak.




GARRAIOA ETA ENERGIA

Tren, hegazkin eta errepide bidezko garraioarekin zein sare adimendunekin eta energia-kudeaketarako osagaiekin lotuta dauden esparruetarako soluzio berritzaileak.



URA ETA OSASUNA

Taldeak urak eta hondakinak tratatu eta kudeatzeko soluzioak eta teknologiak eskaini eta osasun-sektoreari zein elikagaigintzari zuzendutako gailu biometrikoen diseinu, fabrikazio eta saiakuntzan jarduten du.




INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOETAKO TEKNOLOGIAK

Informazioaren teknologiak, komunikazioak, kontrola, automatizazioa eta sistema elektronikoak helburu dituzten diziplina anitzeko soluzio integralak.



04/
ZIFRA
ZIENTIFIKOAK



ARTIKULUAK

66



TESIAK

9



ABIAN DAUDEN
FINANTZAKETA PUBLIKOKO
PROIEKTUAK

91



PATENTEAK
ETA ERREGISTROAK


24

8 PATENTEAK
11 SOFTWAREAREN ERREGISTROAK
5 ERREGISTRO NOTARIALAK



Q1EKO
ARTIKULUAK

32



KONGRESUAK

42



05/

URTEKO GERTAKARIAK

1. COVID-19 PROIEKTUAK

- > Matia Fundazioak Ceit-ek erakundean egindako boluntario-lanagoraipatudu.AitorpenaMatiaFundazioa babesten duten elkarte eta erakundeei eskerrak emateko online antolatutako MatiaZaleak ekitaldiaren VI. edizioan egin da. Lamorous zentroko egoiliarrei konfinamenduan senitartekoein harremanetan jartzeko aukera eman zien urruneko bideo-deien proiektua martxan jartzeagatik aintzatetsi dute Ceit.
- > Proiektua Iñaki Yarza Garapen Arloko arduradunak eta David del Rio ikertzaileak garatu dute, besteak beste.



2. BRTA – EKINTZA PLANA

- > 2020aren bigarren erdialdean, partzuergo publiko pribatuak 2020-2023 epealdirako ekintza-planaren definizioa osatu du. Bertan, hainbat lehentasun-maila eta egutegi dituzten 15 ekimen edo lan-arlo zehaztu dira. Ekimenak ondoko irudian ikus daitezke:
- > Aldi berean, hainbat lan-batzorde abiarazi dira, zientifiko-teknologikoa eta industrialak kasu.



EKIMENA			
CT 1	Erronken agenda eraikitzea	T 2	Ikerketan hasteko programa
CT 2	Ikerketa-gaitasunen mapa (barnekoa)	T 3	Ikerketa eta teknologia arloetako profesionalak erakartzeko programa
TR 1	ETE ekintza	C 1	BRTAren komunikazio-planaren hedapena
TR 2	BRTA Plana covidaren osteko egoeran ekonomia suspertzen laguntzeko	C 2	Foro eta sareetan ordezkatuta egotea
TR 3	Ekonomia-sarea dibertsifikatzeko eta berrirori sortzeko plana	S 1	Zentroen kudeaketa hobetzea
TR 4	BRTAren jardunbide egokiak ikerketaren emaitzen balorizazioaren arloan	S 2	Herrialde mailako proiektu estrategikoen funtzionamendu-arauak
TR 5	Balorizazio-programa propioa	S 3	Krisiak BRTAko zentroetan izandako ondorioak aztertu eta soluzioak proposatzea
T 1	Ikerketa-karrera egokitze prozesua		



05/

URTEKO GERTAKARIAK

3. GIPUZKOA – EKONOMIA ZIRKULARRA

- > José Ignacio Asensio Gipuzkoako Ingurumeneko diputatuak eta José Ignacio Terrés Ceit Zentro Teknologikoaren kudeatzaileak sinatutako lankidetzahitzarmenari esker, I+G+b ildoak abiarazi da, hondakinak berreskuratzen eta birziklatzen jardun eta etxeko olioaren birziklapenean egindako lanagatik nabarmendu den Ekogras enpresak sortutako hondakinekin lan egiteko.
- > Ceit eta Ekogras GK Recycling Birziklapen Klusterreko kideak direnez gero, hitzarmenak elkarte horretako enpresen arteko lankidetzak ere jaso du. Horrela, Gipuzkoako ekonomia zirkularra bultzatu da, hondakinak berreskurapena eta tratamendua aztertuz, ondoren industria-prozesuetan erabili ahal izateko. Ekimen hauek indarrean dagoen hondakin plangintzan aurreikusita daude; izan ere, 2019-2030eko PIGRUG delakoak mota horretako ekintzak jaso ditu birziklapen-programaren barruan. Horren harira, José Ignacio Asensio Ingurumeneko diputatuaren hitzetan, “teknologia berdeen inguruko ikerketa funtsezko faktorea da Gipuzkoa Green Dealen europar politikekin lerrokatzeko, ekonomia zirkularra eta enpleguaren sorrera bultzatuz”.
- > Ikerketa-ildo honetan, Ceit-ek zehaztasun osoz aztertu du Ekogras enpresaren bigarren mailako hondakin balorizazioaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa. Helburua sinergiak bilatzea izan da, Ekograsek olio erabiliarekin egindako balorizazioaren eta hondakin-korrante berrietatik (kafearen azpi produktuak, kasu) sortutako aukeren artean. Balorizazio hau kafe-kapsulak bildu eta birziklatzea xede duen Kafe Project deritzon proiektuari esker sortzen ari da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Ekogras eta Lavazza enpresen partaidetzaz.

4. ATOMIZAZIO INSTALAZIO PILOTUAREN AURKEZPENA

- > 2020ko ekainean, Ceit-eko arduradunek, José M^a Vázquez Eguskiza Presidente Korporatiboa buru zutela, hauts-metalurgiaren eta fabrikazio aditiboaren ildo estrategikoak aurkeztu zituzten, baita Miramongo Teknologia Parkean kokatutako Atomizazioko Instalazio Pilotua ere, Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia, Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailburua eta Eneko Goia Donostiako Alkatea tarteko zituen ordezkariak instituzionalaren aurrean.
- > Balio erantsi handiko aleazio metalikoen atomizazio-teknologiak eta fabrikazio aditiboko prozesuak garatzea da instalazioaren ildo estrategikoen ardatz nagusia, lur arraroak berreskuratze teknologiak eta mugikortasun elektrikorako iman iraunkorren fabrikazioa barne.





05/


URTEKO GERTAKARIAK

5. MAINRAIL – GARRAIOA

- > 2020ko bigarren seihilekoan, Ceit-ek eta Inycom-ek sortutako MainRail Solutions spin-offa eratu zen, trenbide-azpiegituren mantentze-lanetan diharduten enpresei SWko plataforma baten bidez mantentze-lanak kudeatzen lagunduko dieten zerbitzuak eskaintzeko asmoz.
- > SW plataforma honek aktibo linealak kudeatu eta aktiboen egoera bistaratzeko berariaz diseinatutako datu-base bat eta mantentze-lanen kudeatzaile bat integratzen ditu. Horrez gain, portaeren degradazioari buruzko ereduak (edo biki digitalak) txertatuak ditu, baita azpiegituraren kudeaketari dagozkion adierazle nagusiak (arriskutsuak izan daitezkeen akatsak, zerbitzuaren eskuragarritasuna, kostua eta higadura) biltzen dituen maila handiko bistaratze-geruza bat ere.
- > SW plataformaren garapenean datuen analisiari buruzko taldeak eta trenbide arloko taldeak parte hartu zuten, eta Retos Colaboración Hermes proiektuak finantzatu zuen Roll2Rail eta FR8Rail proiektu europarrekin batera, Shift2Rail delakoaren barruan.

6. 5G EUSKADI – TIC

- > Ceit 5G teknologia Euskadin probatuko duen partzuergoko kidea izan da. Euskaltel eta MásMóvil Taldea telekomunikazio arloko operadoreekin batera eta CAF, Gestamp, Datik, Ikusi, ZTE eta DBus konpainien lankidetzaz, 5G sarea zabalduko da Euskadiko hiru Teknologia Parkeetan eta Abadiñon, eta bederatzi erabilera-kasu garatuko dira guztira.





06/

GOBERNU ORGANOAK

KONTSEILU ESTRATEGIKOA

Jose María Vazquez Eguskiza jn.

GIROA, Ceit-eko Presidente Korporatiboa

Jose M^a Rodríguez Ibabe jn.

Ceit-eko Presidente Exekutiboa

Ander Aizpurua Susperregui jn.

Kutxabank Fundazioa, Zuzendari Nagusia

Carlos Alzola Elizondo jn.

ITP Aero, Zuzendari Nagusia

Andrés Arizkorreta García jn.

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, Presidentea

José María Aracama Yoldi jn.

Tangle Research Kontsultoretza Teknologikoa,
Empresako Bazkidea

Amaia Esquisabel Alegría and.

Eusko Jaurlaritza, Ikerketako Zuzendaria

Gustavo González Fernández jn.

Knorr-Bremse, CEOa eta Presidentea

Estíbaliz Hernández Laviña and.

Eusko Jaurlaritza, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa
Digitaleko Sailburuordea

Jorge Ibáñez Villarejo jn.

Garrigues, bazkidea

Jabier Larrañaga Garmendia jn.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa Ingurunekeo Diputatua

Francisco López Luque jn.

Banco Cooperativo Español-eko Kontseilari
Independentea, Arriskuen Batzordeko Presidentea eta
Auditorretza Batzordeko kidea

Francisco López Peña jn.

GESTAMP, Administrazio Kontseiluko kidea

José Antonio Maiz Aguinaga jn.

INTEL Corp, Logic Technology Quality and Reliability-eko
zuzendari ohia

Iván Martén Uliarte jn.

ORKESTRA basque institute of competitiveness,
Chairman

Ignacio Martín San Vicente jn.

Repsol, Kontseilaria

Ignacio Mataix Entero jn.


INDRA, Kontseilari Ordezkarria

Iñigo Ucín Azcue jn.

Mondragon Korporazioa, Presidentea

Jorge Unda Malcorra jn.

SENER, CEOa



IBAETAKO EGOITZA

Manuel Lardizabal Pasealekua, 15
20018, Donostia
ESPAINIA
(+34) 943 212 800

MIRAMONGO EGOITZA

Donostiako Teknologia Parkea
Mikeletegi Pasealekua, 48.
20009, Donostia
ESPAINIA
(+34) 943 212 800

ATOMIZAZIO PLANTA PILOTUA

Miramón Parke Teknologikoa
Mikeletegi Pasealekua, 73A.
20009, Donostia
ESPAINIA
(+34) 943 212 800